



Garunean barra kode bat inprimatzea lortu du lehenengo aldiz espainiar unibertsitate batek. Aparteko aurrerakuntza honek benetako iraultza sozial bat ekarriko du supermerkatuaren muga espazio-temporalak haustea ahalbidetzen baitu.

Neuromarketingari esker guztiok dugu merkatuaren barne bizitzeko aukera. Norberaren esku dago apaletan gorago edo

beherago egotea, sarreratik gertuago edo urrunago leku bat izatea.

Markaketa honek modu praktiko eta ziur batez identifikatzen gaitu, galtzeko tentazioan erortzeko aukera eragotziz. Gainera, eta hau da garrantzitsuena, barra kode honi esker beti izango dugu geure nortasunaren konzientzia ziurra. Historian ez gara inoiz bizitzari zentzu bat ematetik hain gertu izan. Oraingoan bai.

Benetan balio duguna gara. Horrengatik, barra kode hau supermerkatu barruan egoteko egin dugun zorrari buruz ere mintzo da. Biltegitik minak eragindako oihu ixil batzuk irteten dute.

25-3-2012

Zorra tatuaturiko prostitutak

Tatuaje markaturiko emakumeak prostituitzen zituen organizazio bat desegin du poliziak. Eskumuturrean markaturiko barra kodeak jabetzaren seinale eta emakumeek organizazioarekiko gordetzen zuten zorraren oroigarri ziren.



Foto Policía Nacional, Ministerio del Interior.